



**Fantasiatzko eta Beldurrezko
Zinemaren Astea**
**Semana de Cine
Fantástico y de Terror**
**Horror and Fantasy
Film Festival**

TABAKALERA



TODO PASA EN FNAC | FNAC.ES

2016ko Fanzineen Gerra

Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren 27. Asteak, Ubik, (Tabakalerako) Sorkuntza Liburutegiko Autoedizio Txokoarekin eta FNACekin elkarlanean, papera aldarrikatzeko helburuarekin bere **Fanzineen Gerra** mitikoa berpiztu du.

Aurten, **Beldurrezko Asteak** beldurrezko fanzineen aldeko apustua egiten du berriro –zinemaldiaren historia osoan egon dira–. Horrela, **Fanzineen Gerra** mitikoa berreskuratu du. Astearekin lotutako lehiaketa honetan argitaratuko diren fanzineak, datozen urriaren 29tik azaroaren 4ra, ikusleek erabakiko duten saria eskuratzen saiatuko dira.

Ubik-en Autoedizioaren Txokoarekin eta FNACekin elkarlanean, Asteak **Fanzineen Gerraren** bertsio berritua antolatuko du. Izena emateko epea **urriaren 17ra** arte zabalik egongo da. Gehienez 10 taldek hartuko dute parte. Talde horiek antolakuntzak aukeratuko ditu.

OINARRIAK

- Gutxienez 2 kidez osatutako taldeek eman ahal izango dute izena Gerran. Izen-emateak urriaren 17ra arte (hau barne) egingo dira guerrafanzines@gmail.com helbide elektronikoan.
- Gehienez **10 talde** onartuko dira. Talde bakoitzari, gehienez, banakako bi akreditazio doan emango zaizkio Asteako emanaldi guztietan sartzeko. Horren ordainetan, fanzinea egiteko konpromisoa onartzen dute. Parte-hartzaileak Astearen antolatzaileek aukeratuko dituzte.
- Talde bakoitzak izen bat aukeratu beharko du eta fanzinea paperezko **8 orrialdetan** egin beharko du zuri-beltzean. Orria A-5 neurrikoa izango da.
- Fanzineen edukiak fantasiatzko eta beldurrezko zinemaren munduarekin, kultura herrikoiarekin, friki-nostalgiarekin eta abar lotuta egon beharko du, osorik edo zati batean. 2 orrialdek, gutxienez, 2016ko Beldurrezko Astearen programazioarekin lotuta egon beharko dute. Edukiaren zati bat aldeztu aurretik prestatu ahal izango da.
- Fanzineak partaide bakoitzaren baliabide propioekin (idazkera, maketazioa...) egin beharko dira, baina Ubik Autoedizioaren Txokoak bakoitzaren esku jarritako baliabideak ere erabili ahal izango dituzte. Jendearen artean banatuko diren kopien kostua Beldurrezko Asteak ordainduko du.
- Fanzineek Beldurrezko Astearen, Tabakaleraren eta FNACen logotipoak eduki beharko dituzte. Logotipo horiek antolakuntzak emango ditu.



**Fantasiako eta Beldurrezko
Zinemaren Astea**
**Semana de Cine
Fantástico y de Terror**
**Horror and Fantasy
Film Festival**

TABAKALERA



TODO PASA EN FNAC | FNAC.ES

- Fanzine bakoitza antolakuntzari entregatu beharko zaio, parte hartuko duen talde bakoitzari esleitutako egunaren eta orduaren aurretik, artxibo digitalean (pdf, moztetarekin eta 3 mm-ko koskatzearekin) eta erreproduzitzeko beharrezkoa den gutxieneko kalitatearekin.
- Asteko publikoak baloratu ahal izateko, antolakuntzak fanzine bakoitzetik behar diren kopia guztiak egingo ditu.
- Antolakuntzak adierazten dion egunean, talde bakoitzak gehienez 10 minutu izango ditu, Antzoki Zaharreko publikoaren aurrean, bere fanzinea aurkezteko eta botoa eskatzeko kanpaina egiteko.
- **SARIAK.** Talde irabazleak FNACen erosteko hiru txartel lortuko ditu. Txartel bakoitzak 50 euroko balioa izango du. Emaiza azaroaren 4ko amaiera-ekitaldian emango da ezagutzera.
- Parte hartuko duten fanzineak Zinemaldiaren webgunean jarriko dira:
www.sansebastianhorrorfestival.eus

FANZINEMANIA!

Parte hartzera animatzeko asmoz, Ubik-ek eta Asteak *masterclass* bat antolatu dute Espainiako fanzine beteranoenetako batekin.

urriak 20 / 18:00 – 19:30

Ubik, (Tabakalerako) Sorkuntza Liburutegia (Autoedizioa Txokoa)

Gonbidatua: **Manuel Valencia** (*2000maniacos*)

Nola egin underground fanzine bat? Fantasia eta Beldur zinema dastatzen hasteko Manuel Valencia *2000 Maniacos* fanzinearen buruarekin masterclass-a antolatu dugu.

Fantasia eta Beldur zinema asteko Fanzine Gerran parte hartzeko Manuel Valenciak edizioaren inguruan aholku eta pistak emango dizkigu.

Fanzineroak eta fantasia eta beldur zinema zaleak, liskarrerako prestatu zaitezte!

